

#217. Re: XX. mendeko otoitzak Veleian

Hector Iglesias | 2010-05-20 | 11:43

Zenbaitek jendeari, hau da gai hauetan aditua ez den jendeari, sinetsarazi nahi diote bi mila urte inguru dituzten Akitaniako euskara zaharraren hitzak eta gaurko euskararen hitzak ez direla berdin-berdinak, ez formaren aldetik ezta esanahiaren mailan ere, eta ondorioz Veleiako euskarazko idazkunak, K.o. III-IV. mendekoak direnak, « ezinezkoak » direla.

Duela gutti, Hegoaldeko lagun batek horretaz hauxe bera erraiten zidan (gaztelaniaz ari zen —bestalde, lagun batzuek jakinarazi berri didate posible zela Sustatuko testuak egituratzea hobeki eta aiseago irakurriak izan ahal daitezen) :

« No están de acuerdo, porque claro... si fuera posible en el caso de las inscripciones vasco-aquitanas [jakin badakigun bezala, bi mila urte inguru dituztenak] que éstas [erran nahi baita, « hor agertzen diren hitzak »] hayan sido idénticas a las formas vascas actuales, tanto al nivel de la forma como del significado, cosa que parece efectivamente que lo son verdaderamente [hau da : « formalmente idénticas »], entonces se meten en una contradicción teórica tremenda que no saben como darle la vuelta al asunto. Están en una “impasse” teórica sin salida posible».

Ene iduriko, iritzi honek badu nonbait bere koherentzia.

Argi da « hau dena » faltsua dela diotenak pixkanaka-pixkanaka izigarriko kontraesan teoriko batzuetan erori direla... eta gainera konturatu gabe zeren-eta, oxtion aipatu lagunak erraiten zidan bezala, behin baino gehiagotan —eta ia kasik beti— komentarista horiek orok beren balizko « azalpenak », Veleiakoari buruzkoak, presaka, lehiaka, tarrapataka, arrapaladan eta nola-nahika eman baitituzte —eta, iduriz, emaiten segitzen dute.

Eta baita ere, zergatik ez erran —batek baino gehiagok askotan dioten bezala— komentarista horietarik gehienek afera hau « a la española » trenkatu nahi izan dutelakotz, erran nahi baita pentsatuz, seguruenik, « hau » paseo bat, formalitate ximple bat besterik ez litzatekeela...

Izan ere, « faltsutze-teoria » defendatzen duten autore horiek guziek behin eta berriro gauza bera aldarrikatzen dute eta behin edo beste oihukatzen ere bai (gogora dezagun nola zegoen Gorrochategui katedraduna zutik eta oihuka Silgok eta nik emandako konferentzian, Gasteizen), beraz gogora dezagun hemen « faltsutasun definitiboa » aldarrikatzen dutenek behin eta berriz —eta kasik etengabe— errepikatzen ohi dutena :

« Ez da posible »... !

Bainan zergatik « ez da » posible ?

Galdera oso ximplea da —eta gure aldetik gehi genezake ere ez dela posible galdera bat ximpleagoa izaita, zinez.

Erantzuna, aldiz, hau da « faltsutasuna » aldarrikatzen duten ororentzat, askoz ere zailagoa eta neketsuagoa da, dudarik ez.

Izan ere, detaile teknikoetan —hizkuntzalaritzan balio duten bakarrak— sartzekotan, haien « erantzuna » (edo « erantzunak ») behin baino gehiagotan ezinago korapilatsuagoak bilakatzen dira.

Laburbilduz, « faltsutasuna » inposatu nahi dutenen « argudio nagusia » zera da : haien arabera, azken bi mila urte hauetan euskararen hitzak « aldatuz » joan ziren... eta gainera, beti haien arabera, « etengabe » aldatuz joan ziren...

Ikus dezagun orain komentarista edo iruzkingile horiek, « hau dena » faltsua dela diotenak, arrazoin duten ala ez.

TXILLARDEGIren arabera (**Lingua navarrorum**, Egin biblioteka, 1996 : 65-67) :

« Akitaniera euskara zaharra da. Hona hemen iritzi batzuk hasteko. Antonio TOVAR-en aurrenik : “La ecuación aquitano igual a vasco más celta... nos parece **segura** (TOVAR, El euskera, 1959 : 61 orr.). Eta aurrerago : “La lengua aquitana no es otra que el vascuence” (90). (...) LAFON-en ustez, bide honetatik, akitaniera “aspaldiko euskara” besterik ez da. GORROTXATEGIk, berriz, behin eta berriz aipatua dugun “Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania” izeneko bere Tesi zehatzean (1984), onomastikaz beste oinarririk ez izanik ere, abiaburutzat hartzen du Akitaniako hizkera zaharra, euskara baizik ez zela. »

Jarraian, TXILLARDEGIk zenbait adibide emaiten ditu :

« **Harbelex (Harbel(e)tz**, alegia) ; **Herauscorri** (ik. **herauts** gaurko euskaraz) [-ts + -g > -sk-eboluzio fonetikoa eta guzti ! Ikus ere aurrerago TXILLARDEGIk gai horri buruz dioena] ; **Hars-i** (gaurko **hartz**) ; edo-ta, bokale artean : **Lohisi** (ik. **lohi**), **Bihoxus** (ik. gaurko **bihotz**) ».

Aurrerago :

« Distribuzioa ere, euskal plegukoa da : hitz amaieran, afrikatua ; hitz erdian, frikaria. /s/-ren ondoko /b, d, g/ hirukotea, sistematikoki /p, t, k/ bihurtua : arestian aipatutako **Herauscorri**, **Andoxponni**, **Harspi**, **Bihoscini** (-kini ahoskatua). »

« Haserako leherkari gorra (adb. **Cison**, kizon ahoskatua orduan) gure “gizon” bihurtu da, eboluzio eskuar eta iraunkorraren bidetik : **gonbarazio**, **gauza**, **goru**, etab... Leherkari hasperendu batzuk (bigarren silaban gainera !) /h/ transkibaturik topatzen ditugu : **Aherbelst** (= **Akher** + **beltz**). »

« Gaurko /m/ batzuk, /mb/ sudurkariztatutako soinu zahar batetik datoz : **Ombe** = **umme** (Lergako izkribuan), **ume** gaur. Bide beretik akit. **Sembe**, gaur **seme** ahoskatua. (Puntu honetan bereber-etik bertago dauden formak genituzke aspaldiko denboretan). Itxura denez, bestalde, diptongo berak (edo bertsuak bederen) ditugu akitanieraz eta gaurko euskaraz. »

« (...) **Arixo**, **Harbelex** ; baina **Sutugio**, **Asto**. (Honetara **Arixo** hori **Arix** (= **(h)aritz** [ez da ongi irakurtzen] litzateke). »

TXILLARDEGIk gehitzen du :

« /h/-aren falta ez da oso harritzekoa (ikus Peillen-en artikulua mamitsua : “Aintzinako zubereraren aztarna batzuk”, Fontes L. V. 59, 1992 : 97-117). »

Txomin PEILLENen artikulua bat zeinetan, diosku TXILLARDEGIk, gure euskaltzain zuberotarrak idazten baitu, hitzez hitz :

« “Hariztegi” normala, **Axtégi** ahoskatzen da (“osaba zenaren etxea” zehatzen du Peillenek) ; jatorrian “a(r)iztegi” dugularik. »

TXILLARDEGIk jarraitzen du :

« Lehenengo silabako /h/-ren galera horiek, oso ezagunak dira Ekialdeko euskalki honetan : **hi iz** [ikus Veleiako **IZANA** aditza !], baina **ehiz** eta **behiz** (**ez haiz** eta **baihaiz**). Baina zuberotar euskaltzainaren lekukotasuna aurrerago doa : **Axkáñe**, **Axkarái**, **Axkorriága**, **Atxárte**. Posible da, hitz batez, “aritz” forma zaharra. »

Erran nahi baita **h**-rik gabe, Veleiako idazkuntan bezala !

Beraz, TXILLARDEGIk eta Txomin PEILLENek diotena kontutan hartzen eta ontzat emaiten bada, aitzineuskararen hitz batzuek ez zuten, behin baino gehiagotan, **h**-rik erakusten, Veleiako idazkuntan bezala, nahiz eta gaurregungo euskararen hitz horiek berek **H** bat duten...

Azkenik eta beti TXILLARDEGIren arabera :

« Hipokoristikoen ilara, euskararena bera da, edo hor nonbait : **Ombecco** (= **umeko**, **umetxo**) ; **Andrecco** (= **andreko**) ; **Sembecco** (= **semeko**, **semetxo** ; gogoan har gure **astoko**, **mutiko**, etab. **Anderexo**, **Sembexo**, **Baicorrixo**-k gaurko tipikariak dirudite. Zinez esan dezakegu TOVARrekin : “la semejanza entre estos nombres de inscripciones romanas y el vasco es enorme en la Aquitania” (El euskera, 61). »

Aipa dezagun orain beste aditu bat, oso maila handiko hizkuntzalari ospetsu bat eta bestalde ohorezko euskaltzaina : Jacques ALLIÈRES zena (« De l'aquitain au basque », in **La langue basque parmi les autres : Influences et comparaisons**, Ed. Izpegi, 1994 : 65-66).

ALLIÈRESEk idazten zuen, hitzez hitz :

« Les bases aquitaines sont dans leur grande majorité superposables à des mots basques, comme on le voit par la liste suivante :

Andere b. **andere** “femme, dame”, **Atta-** b. **aita** “père”, **Aher** b. **akher** “bouc”, **Arix-** b. **haritz** “chêne”, **Arta-** / **arte-** b. **arte** “chêne-vert”, **Asto** b. **asto** “âne” (ou **aste** “semaine” ?), **Bai-** b. **ibai** “rivière”, **Belex-** b. **beltz** “noir”, **Berhax-** b. **beratz** “blando”, **-berri-** b. **berri**, “neuf, nouveau”, **Bihox-** b. **bihotz**, “cœur”,

Bors- b. **bortz** “cinq”, **Cison-** b. **gizon** “homme”, **-corri-**, **-gorri-** b. **gorri** “rouge”, **Esten-** p.-ê. b. **ezten** “aiguillon”, **Hanna-** très hypothétiquement b. **anaia**, **Hars-** b. **hartz** “ours”, **Heraus-**, **Haraus-**, **Harous-** b. **herauts** “verrat” et **erhauts** “poussière”, **Ili-** b. **hiri** “ville”, **Ilun-** b. **ilhun** “sombre” **Ilur-** b. **lur** “terre”, **Laur-** b. **lau(r)** “quatre”, **Lohi-** b. **lohi** “boue” ; “corps”,

Nesca- b. **neska** “fillette”, diminutif **neskato** (cf. Saléchan), **Leher-** b. **leher** “éclater, détruire”, “pin” et **lehen** “premier”, **Losa-, Loxa-** b. **lotsa** “pudeur, honte”, **Ombe-, Umme-** b. **ume** “enfant”, **Oxson-** b. **otso** “loup”, **-Sahar** b. **zahar** “vieux”, **Sembe-** b. **seme** “fils”, **Silex-** p.-ê. b. **sirats** “destin”, **Siri-** p.-ê. b. **ziri** “berceau”, “bâton”, **Soson-** p.-ê. b. **zozo** “geai”.
»

ALLIÈRESEk gehitzen zuen :

« On voit que la récolte est abondante, et qu'une équation aquitain = proto-basque septentrional se trouve de ce fait à peu près établie. »

Jarrai dezagun ALLIÈRESEkin (**Manuel pratique de basque** Ed. Picard, 1979 : 16) :

« Deuxième constatation : des éléments indigènes contenus dans les noms de personnes ou de divinités, si certains sont de type celtique, on en compte bien une quinzaine qui sont identiques à des mots basques, et dont le sens conviendrait bien à cet emploi particulier :

ANDERE (**andere** « jeune fille, dame »), **NECATO** (**neskato** « fillette »), **CISON** (**gizon** « homme »), **BERRI** (cf. supra), **ASTO** (**asto** « âne »), **ILUN** (**ilhun** « sombre »), **SEMBE** (**seme** « fils »), **SENI** (**sein** « enfant »), **BIHOS** (**bihotz** « cœur »), **BELST** (**beltz** « noir »), **CORRI** (**gorri** « rouge »), les suffixes **-TAR(R)** (**-tar** « habitant de »), et ****–X(S)O** (**-txo**, **-xo**** diminutifs). »

ALLIÈRESEn konklusioa :

« L'histoire et l'épigraphie fournissent donc de fortes présomptions en faveur d'une identification des Aquitains dont parle César avec les ancêtres des Basques. »

GORROCHATEGUIK idazten du (« Los Pirineos entre Galia e Hispania : las lenguas », **Veleia, revista de Prehistoria, Historia antigua, Arqueología y Filología clásicas**, 12 1995 : 207-208), hitzez hitz, zehatz-mehatz :

« Además desde el punto de vista lingüístico muchos de los nombres pertenecientes a este conjunto específico aquitano, así como buen número de sufijos de formación nominal o fenómenos fonológicos, admiten una buena explicación cuando se ponen en relación con nombres, sufijos o fenómenos conocidos de la lengua vasca (...) »

« (...) los testimonios de los nombres basados sobre **Andere**, que se identifica sin problemas con el apelativo vasco **andere** « señora » y los basados sobre **Cison / Gison**, identificados con vasc. **gizon** « váron » (...) los testimonios de los nombres basados sobre **sembe-**, relacionado con vasc. **seme** (...) »

Luis MICHELENAk idazten zuen (**Textos arcaicos vascos** ASJU, Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca « Julio de Urquijo », XI, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990 : 14-20), hemen ere hitzez hitz :

« **Cis(s)on-** provisto de dos sufijos que ya nos son conocidos, coincide perfectamente con vasc. **gizon** “hombre”. Es corriente en la onomástica aquitana que el nombre del padre y del hijo tengan un elemento común, que es de ordinario el primero » (MICHELENA, 1990 : 18, § 1.8).

Beti MICHELENAREN arabera :

« **Neureseni** dat., **CIL** 2 (cf. vasc. **neure** “de mi mismo” ?) » (Michelena, 1990 : 19, § 1.10).

Hemen MICHELENAK inplizituki onartzen zuen, nahiz eta iduriz zenbaiti ezin ukatuzko errealitate hori ez gustatu, erabat posible dela **neure** forma bat esistitu izana Antzinateko euskaran ; bestalde ikus **NEVRE** forma Veleiako idazkунetan !

MICHELENAK gehitzen zuen :

« **ilunn-** puede corresponder a ibérico **ildun** (**-ilun** en el bronce de Ascoli) y a vasc. **il(h)un** “oscuro”. Para **Asto-**, se ha pensado en vasc. **asto** “asno” y **aste** “semana” » (Michelena, 1990 : 16, § 1.2).

Bestalde, MICHELENAREN beste artikulua famatu batean (« De onomástica aquitana », in **Pirineos X** 1954 : 409-455 ; baita ere in **Lengua e Historia** 1985 : 409-445, XXXIII) autoreak idazten zuen, hitzez hitz :

« Entre las ecuaciones vasco-aquitanas el grupo más seguro es sin duda el constituido por designaciones de sexo, edad y parentesco : aquit. **Andere Cison Nescato Sembe Seni** vasc. **and(e)re** “señora, señorita, mujer”, **gizon** “hombre”, **neskato** “muchacha”, **seme** “hijo”, **se(h)i** “criado”, vizcaíno **señ** (ant. **sei** a leer probablemente **sei** [tilde batekin **i** letraren gainean]), Landucci **segi** “niño” ». (Michelena, 1985 : 426-427).

Jarraian, Luis MICHELENAK idazten zuen :

« Las razones que apoyan estas comparaciones son evidentes y pueden resumirse así.

1. Los paralelos son formalmente irreprochables [bestela errana, hemen Luis MICHELENAK berak konfirmatzen du garai hartako euskal hitzak eta gaurkoak berdin-berdinak direla, duda izpirik gabe],
2. Los nombres vascos comparados están en cierto modo dentro del mismo grupo semántico,
3. [hemen dugu biziki inportante den aspektu linguistiko bat] las aproximaciones están de acuerdo con el género de los nombres aquitanos (**Andere**, **Nescato** son nombres de mujer ; **Cison**, **Sembeten**, etc., de hombre), y
4. Habla a su favor la persistencia de denominaciones análogas en Vasconia y sus proximidades durante la Edad Media, aspecto sobre el cual han insistido sobre todo **LUCHAIRE** y **CARO BAROJA**. »

MICHELENAK gehitzen zuen :

« En cuanto a aquit. (y vasc. ant.) **senbe** > vasc. **seme**, hipótesis ya antigua, la reducción del grupo es del más corriente y se ha producido tanto en Aragón y Castilla como en el sur de Francia. Más adelante veremos (§ 23) que el proceso podría apoyarse con razones internas de fonología vasca » eta abar luze bat (hemen aipatuko ez dudana, toki faltarengatik).

LAKARRAK berak ezinago argiki onartzen du aintzineuskararen edo akitanieraren eta euskararen arteko antzekotasun formala —eta, jadanik jakin badakigun bezala eta MICHELENAK berak orroitarazten duen bezala, hemen ezin ukatuzko antzekotasun formal

bat besterik ez daiteke izan— idazten duelarik (LAKARRA, « Sobre le europeo antiguo y la reconstrucción del protovasco », **ASJU**, **XXX-1**, 1996 : 23-24) :

« (...) los elementos comunes [Lakarra hitz horien kanpoko formaz ari da, hemen ez da duda izpirik, bainan oker banengo —uste ez dudana—, berak erranen digu orduan zertaz ari den...] con el vascuence *seguros* —también aquí las cursivas son mías— presentes en las inscripciones aquitanas (unos 50 de apenas dos centenares de términos [i.e. aquitanos conocidos] ».

Hau da, Akitaniako **corpus** ezagunaren orotasunaren 25% ! Portzentaia hau egundokoa da, zinez !

Zein da beraz konklusioa ?

Aditu guziek —LAKARRA barne !— identifikatu ahal izan dituzten akitanierazko hitz asko eta asko, erran nahi baita duela bi mila urte inguru dituzten euskal hitzak, gaurko euskal hizkuntza « moderno »-an agertzen dira, guri eta « haiei » gustatu ala ez, eta gainera forma berdin-berdinarekin, nahiz eta zenbait kasutan aldaera ñimiño batzu ikusten ahal diren (**seni-** > **se(h)i**, ili > (h)iri**, etabar. ; aldaera fonetiko ñimiño horiek oxtion aipatu adituek erreki esplikatua izan dira).

Konklusioa :

Azken bi mila urte hauetan euskal hitz horien forma fonetiko ez da batere aldatu, kasu gehienetan ezta hurbiletik ere, eta beraz lasai baino lasaiago erran dezakegu Veleiako idazkuntan —III-IV. mendekoak direnak kasu gehienetan— ikusten ditugun euskal hitzak ez direla inola ere « ezinezkoak » eta bestalde gehi dezakegu ere, hemen ere lasai baino lasaiago, Veleian agertzen diren hitz horiek oro ez direla, aditu burudunek ongi dakitenez, sekulan izan « ezinezkoak » eta nik erran nezake ere ez direla sekulan izango « ezinezkoak », euskalari zentzudunek gaur egun arte euskararen historiaz dakitena kontutan hartzen badugu, bederen.

Bestalde, nik betidanik pentsatu dut, eta ez naiz bakarria, eztabaida zientifiko hau epaitegietara eraman izana, hain azkar eta hemen ere nola-nahika eta tarrapatata gainera, errore monumental bat izan dela.

Eta hori zergatik ?

Ezatabaida zientifikoak ez baitira epaitegietara eramaiten ahal. Hori filma komikoetan bakarrik gertatzen da, gertatzekotan.

Bainan orain haurkeria hau —hau da, ezatabaida hau epaitegietara eraman izana, zinez izenik eta zentzurik gabeko egiazko umekeria bat besterik izan ez dena, eta gutti ez balitz bezala erabat erridikulua gainera eta bestalde zeharo katastrofiko euskatzale zintzo guzientzat eta baita ere Euskal Herri osoarenzat, nazioarteko mundu zientifiko zentzuduna aipatzea ahantzi gabe, seguruenik harriduraz begiratzen bide gaituena— hots, argi da ezin aurkeztuzko haurkeria hau egin dutenarik gehienak damutzen hasi edo hasten direla eta bixtan da, haietarik gehienak biziki beldurtuak dira orain —eta beldur hori « humanoa » da : **errare humanum est**— zeren-eta baldin eta azkenean froga baledi hau dena benetakoa dela orduan, eta dudarik gabe, ondorioak, hainbat unibertsitari eta agintari alditsuentzat bederen, sekulakoak, benetan sekulakoak, izan bailitezke.

Beraz, pentsa zer egoera barregarritan gauden orain euskaltzale guziak !

Eta hori euskaltzale buruarin, buruiritzi eta arduragabe gutti batzuen faltarengatik.

Bestalde, Julen MANTEROLAren kasua nahi nuke hemen aipatu. Duela zenbait hilabete idatzi zidan eta nik erantzun nion.

Hizkuntzalari eta ikertzaile horrek egin ikerketa-lanak —denak irakurri ditut— serioenatarikoak izanik ere, nik uste dut ****–ha**** formaren emaiten duen esplikazioan tronpatzen dela.

Gai horri buruzko nere iritzia idatziz helarazi nion, hau da joan den urtean, eta jakinarazi eta esplikatu ere bai zergatik tronpatzen den.

Nere artikuluetarik batean, 2009ko urrian argitaratutakoa, frantsesez idatzitakoa, esplikazio guziak agertzen dira. [Veleiako idazkunei buruzkoa](#)

Hauxe da artikululu luze horretan idazten nuena :

« Cela étant, et malgré le fait que dans ses **Preliminares**, Lakarra affiche une ambition de clarté (« En lo que sigue expondré con cierto detalle y la mayor claridad posible mi análisis de las supuestas piezas vascas que han sido presentadas a nuestra atención »), le discours de l'auteur est pourtant en bien des endroits de ce rapport officiel et public quelque peu « brouillon », aspect confus résultant peut-être d'une rédaction menée dans la précipitation.

De temps à autre, il sera par conséquent nécessaire de le démêler, autant que faire se peut, afin de rendre sa « démonstration » la plus claire possible et compréhensible par tous, spécialistes ou non de la langue basque.

Lakarra nous dit donc que son étudiant, ledit Manterola, a fait une découverte (« descubrimiento de Manterola ») de grande envergure, ce dont on ne doute pas.

Mais quelle est-elle ?

La voici :

L'apparition dans la **Reja** d'un **h** , un fait connu pourtant depuis des décennies par les spécialistes, devant l'article a "prouve" selon Lakarra que l'existence dudit article au IIIe siècle de notre ère, voire au IVe siècle, est "impossible" (fr. "impossible") car il est inconcevable, toujours selon Lakarra, "que la derivación * har > a** estuviera completada en esa cronología y aun bastante más tarde (toponimia del s. XI. p.e.)".

Procédons par étape et entrons à présent de plein pied dans les détails, comme l'exige au demeurant toute démarche qui se veut scientifique, loin des grandes généralités.

Dans ce document du XIe siècle, daté de l'année 1025 plus précisément, on trouve de nombreux toponymes faisant déjà apparaître l'"article" sous sa forme actuelle. Etant donné qu'ils sont nombreux, on n'en citera que quelques-uns parmi ceux ne souffrant aucune contestation : **Larrea, Hazpurua, Hurigurrena, Ermua, Zavalla, Zuhibarrutia, Olhaerrea, Carrelucea, Zuffia**, etc.

Manterola choisit en revanche, dans le cadre de sa démonstration, d'en citer quelques-uns présentant un **h** : **Hillarrazaha**, **Artazaha**, **Otazaha**, **Udalha** (a. 1025), puis utilisant quelques documents postérieurs, il ajoute : **Horriaha** (a. 1087), **Elhorzaha** (a. 1129).

De l'existence de ces toponymes et de quelques autres, il tire la conclusion suivante :

« (...) toponimo horien amaieran ikusten dugun [**sic**, i.e. ditugun] **ha** horiek artikuluak dire[la], bere garai zaharretan erakusleetarik gorde behar zuen hasperena zutenak ».

Soit en français (traduction littérale) :

« (...) ces **ha** que l'on constate à la finale de ces toponymes sont des articles qui maintiennent l'aspiration [héritée] des démonstratifs [telle qu'elle devait exister] à leurs époques les plus anciennes [i. e. de ces démonstratifs] ».

Et Lakarra d'utiliser aussitôt cette "démonstration-affirmation" de Manterola comme argument définitif dans sa croisade contre l'existence de l'article **a** au début de notre ère.

Cela étant, le lecteur de ces lignes, simple curieux ou spécialiste, se permettra de poser quelques questions simples :

1. Si les **h** que cite Manterola représentent véritablement une aspiration comme il l'affirme, comment se fait-il qu'ils n'apparaissent pas dans tous les noms munis dudit "article" apparaissant dans la **Reja de San Millán** ?

Il s'agit pourtant du même document, et nonobstant cela la majorité des noms où apparaît l'"article" ne montrent à aucun moment une quelconque "aspiration" : à aucun moment nous n'avons les formes suivantes : ***Larreha**, ***Hazpuruha**, ***Ermuha**, ***Olhaerreha**, ***Carreluceha**, ***Zuffiha**, etc.

1. Pourquoi, en effet, le rédacteur de ce document médiéval ne note-t-il pas cette présumée aspiration **-ha** dans tous les noms munis d'un "article" qu'il est amené à citer ?
2. Comment Manterola peut-il dès lors être sûr que, dans les quelques noms munis d'un **h** qu'il cite, ce **h** représente en réalité une aspiration ?
3. Quel est l'élément lui permettant d'affirmer que ce **h** n'a pas été utilisé **comme un simple signe pour rompre l'hiatus entre deux voyelles** ?

Car ce procédé graphique, très bien connu des spécialistes, a de tout temps été utilisé dans plusieurs langues pour supprimer les hiatus nés de la rencontre entre deux voyelles, et cela depuis l'Antiquité.

Par exemple, dans les inscriptions messapiennes et vénètes, osques, ombriennes, etc. et même latines, sa principale fonction consistait déjà à annuler l'hiatus :

Moldahias (n° 3000), **Dehatan** (n° 2959), **Morkohias** (n° 2946), etc. ; en vénète : **Oihavos**, **Koliahiia**, etc., mais également dans le latin **ahenus**, l'ombrien **ahesnes**, l'osque **stahint**, le volsque **pihom**, etc.

Manterola, lui même, paraît peu convaincu de ce qu'il avance puisque, à un moment donné, il cite le nom basque **Abaunza**, lequel est attesté au Moyen Âge sous la forme **Habaunçaha** avec **çaha**, le nom réapparaissant à nouveau dans le même document sous une autre forme **Ahabaunçaa** avec **çaa**, ce qui montre clairement que la présence du **h** ne reproduit pas dans le cas présent une aspiration mais au contraire que cette lettre est utilisée pour supprimer l'hiatus né de la rencontre des deux voyelles **a + a**, soit : **aa > aha**.

Le doute sur la présence ou non d'une aspiration s'estompe lorsqu'on constate que, dans un document daté de 1278, le nom basque **Abarzuza** apparaît écrit **Auarçuçaa** puis, aussitôt après, sous une forme contractée **Auarçuça**, ce qui montre ici aussi que nous ne sommes pas en présence d'une aspiration.

On voit à travers ces quelques questions simples que ce que Manterola et Lakarra présentent comme étant des “certitudes” sont en réalité loin de l'être. »

Konklusioa : ene iduriko, ikertzaile honek ematen duen esplikazioa oso orijinala eta interesgarria da, baina Julen MANTEROLA tronpatzen da zeren-eta, eta oxtion jadanik erran dugun bezala, « la présence du **h** ne reproduit pas dans le cas présent une aspiration mais au contraire que cette lettre est utilisée pour supprimer l'hiatus né de la rencontre des deux voyelles **a + a**, soit : **aa > aha**. ».

Bestalde :

- Linschmann-Aresti legeari dagokionez, ikus Iglesias, 2009 : 110-114, § 38, 38.1 : "Les inscriptions...": <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/42/54/73/PDF/artxiker-Veleia.pdf>
- **niz hiz**, etabar. forma arkaikoak (**niz > naiz**, etabar.) ikus Orpustan, 2003 : 8-9 : "Sur les changements phonétiques dans les formes conjuguées des auxiliaires premiers en basque : radical-participe transitif *EDUN (inusité dans la langue historique documentée) “avoir, eu”, radical-participe intransitif *IZAN “être, été”": http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/08/13/78/PDF/Changet_Phon_AuxilVerbal.pdf

Bukatzeko :

Zer nahi du jakin jendeak ?

Jendeak jakin nahi duena, guk dakigula, zera da :

- Idazkun horiek benetakoak dira, bai ala ez ?

Ene ustez, benetakoak dira.

Eta, bestalde :

- Possible ote da hau dena falsifikazio bat izaitea ?

Teorian, bai. Baina hemen teorian posible dela erraitea asko eta ezer erraitea bezala da.

Adibidez : estralurtarrak esistitzen ote dira ?

Erantzuna : teorian, bai.

Bainan hori erraitea ez da froga bat. Eta, guk dakigula, mementuko inork ez du inoiz esistentzia hori frogatu ahal izan, nahiz eta teorian bederen posible litekeen.

Eta beraz Veleiean ere posible liteke, teorian bederen, falsifikazio bat izaita. Bainan ez da aski erraitea... behar da frogatu !

Eta non dira frogak ?

Ez da frogarik. Argi eta garbi.

Hizkuntzalaritzarekin lotutako iritzi eta teoria guziek ez dute permititzen deus afirmatzea.

« Hau dena » egia den ala ez jakiteko, behar dira froga fisiko-kimikoak egin, nahitaez, gustatu ala ez gustatu, eta froga horiek egingo dira, ez dakit noiz egingen diren bainan ni bederen segur naiz egingen direla.

Humanitatearen historian beste aurkikuntzak gertatu direlarik, zenbait kasutan zinez egundokoak izan zirenak, froga horiek beti egin dira, askotan urte anitz geroago, bainan egin dira beti, eta beraz hemen bati baino gehiagori ia erabat ezinezkoa gertatzen zaio esplikatzeari zergatik ez diren kasu honetan egiten.

Hector Iglesias Baiona, 2010/05/19